

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

45. astea (2025eko azaroaren 3tik 9ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko mantentzen du, baina, oraingoz, ez du eragin esangarririk AIA guztiak hartuta. Bronkiolitis eta COVID-19 tasak balio baxuetan mantentzen dira.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 367,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (340,2/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak goranzko joera mantentzen du. Bronkiolitisaren tasak gora egin du aste honetan eta COVID-19arena baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 52 lagin jagoleen % 67,3 baieztatu da, 23 gripe-birus eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik, baina ez ABS. 10 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,0/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA tasa eta larrialdietako gripe sindromearena intentsitate maila baxuan mantentzen dira, azken honek goranzko joera argia duelarik. LMAko bronkiolitisaren (<2 urte) tasa oinarritzko mailan mantentzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 427 gripe-birus, 31 SARS-CoV-2 eta 21 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 367,1 kasukoa izan da (340,2/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 247,7/100.000 izan da Araban, 427,6/100.000 Bizkaian eta 326,4/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3071,2 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1940,5 eta 603,8 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 167,6 kasukoa izan da (151,4/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI gehienetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 45. astea	Tasa 44. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	270,6	240,5	1,13 (1,02-1,25)
Arabar Errioxako ESI	407,6	382,1	1,07 (0,71-1,60)
Barakaldo-Sestaoko ESI	388,0	324,4	1,20 (1,05-1,36)
Barrualde-Galdakaoko ESI	442,2	468,1	0,94 (0,88-1,02)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	474,3	414,2	1,15 (1,07-1,23)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	427,2	365,9	1,17 (1,05-1,30)
Uribeko ESI	324,9	308,6	1,05 (0,95-1,17)
Bidasoako ESI	292,9	268,5	1,09 (0,90-1,32)
Debararrenako ESI	338,4	345,4	0,97 (0,82-1,17)
Debagoienako ESI	266,7	244,9	1,09 (0,88-1,35)
Donostialdeako ESI	308,3	288,6	1,07 (0,98-1,16)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	345,0	333,6	1,03 (0,88-1,21)
Tolosaldeako ESI	395,3	319,7	1,24 (1,03-1,48)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasak 33,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino egin du gora (27,4/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du ere eta 245,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (137,1/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 1,9 kasutan mantentzen da (1,9/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 52 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 67,3 baieztatu dira. 23 gripe-birus (21 A(H3) eta 2 A(H1)) eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira, baina ez ABSik. 10 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,9koa izan da (% 1,5 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 44,2an (% 47,8 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 3,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 19,2koa izan da (% 17,9 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	45. astea		44. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	23	44,2	32	47,8	94	28,3
SARS-CoV-2	1	1,9	1	1,5	9	2,7
ABS	0	0,0	2	3,0	3	0,9
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	0	0,0	0	0,0	11	3,3
Adenobirus	0	0,0	1	1,5	2	0,6
Errinobirus	10	19,2	12	17,9	107	32,2
Urtaroko CoV	2	3,8	0	0,0	6	1,8
Enterobirus	1	1,9	0	0,0	4	1,2

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 12,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,0/100.000 aurreko astean), 12,5/100.000 gizonetan eta 12,9/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 58,1 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 35,7 eta 13,4 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 2,6koa izan da 100.000 biztanleko (2,0/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,1ekoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,0 kasukoa 100.000 biztanleko (0,4/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,8raino jaitsi da (% 4,1 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du, % 30,8an kokatuz aste honetan (% 20,7 aurreko astean) eta ABSrena % 3,2an mantentzen da (% 3,7 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna altu mantentzen da % 25,5ean (% 22,9 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	45. astea		44. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	240	0,8	217	4,1	1284	5,1
Influenza	201	30,8	174	20,7	1013	21,8
ABS	186	3,2	162	3,7	942	1,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbateteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAREN zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gaititu zela, aste honetan intentsitate maila baxuan mantentzen delarik, goranzko joerarekin.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, lehen mailako arretako 2 urtetik beherako bronkiolitis diagnostikoei dagokionez, tasa atalase epidemikoaren azpitik kokatzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 427 gripe-birus, 31 SARS-CoV-2 eta 21 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 427 gripe-birusetatik, 228 A motakoak izan dira, 115 A(H3), 81 A(H1)pdm09 eta 3 B motakoak. 2025/40 astetik 1460 detekzio erregistratu dira, 1454 (% 99,6) A motakoak eta 6 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 865 birusetatik, 457 (% 52,8) A(H3) eta 408 (% 47,2) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



2025eko azaroak 13